Errenteriako Udala
Zbk./ Nº 2022/13497
Data / Fecha 2022/07/20 14:07
Irteera / Salida

ERRENTERIA
UDALA
Giza Baliabideak / Recursos Humanos

**Espediente zk.**/Nº Expediente: 2022RPOL0041 **Erreg. data**/Fecha Reg: 2022/06/21
**Erreg. zk** ./ Nº Registro: 012516
**Gaia**/Asunto: Idazkari nagusiari baimena ematea San Markos Mankomunitateko idazkari-lanak egiteko / Autorización a la secretaria general para ejercer las funciones de secretaría en la Mancomunidad de San Marcos
**Eskatzailea**/Solicitante: MANCOMUNIDAD MUNICIPAL DE SAN MARCOS **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2000015D
**Kokalekua**/Emplazamiento: ERRENTERIA **Dekretu zk.**/Nº Decreto:

**JAKINARAZPENA**

**Udalbatzarrak, 2022ko uztailaren 19an ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu zuen, beti ere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:**

**AKORDIOA**

**10. Proposamena: San Marko Mankomunitateko idazkaritza funtzioak Errenteriako Udaleko udal idazkariak hartzea. (2022RPOL0041)**

2022ko maiatzaren 10eko idazki baten bidez, San Markos Mankomunitateko Lehendakariak Udal honi jakinarazi zion Mankomunitateko egungo Idazkariak, Lezoko Udaleko Idazkariak, karguari uko egiteko asmoa duela. Jakinarazi zuen, halaber, Mankomunitatearen Estatutuekin bat etorriz, maiatzaren 20ra arteko epea zutela Mankomunitateko edozein udalerritan Idazkaritza-plaza jabetzan betetzen duten gaikuntza nazionaleko funtzionarioek kargua betetzeko interesa ager zezaten, Mankomunitateari jakinarazita.

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Politikako eta Toki Administrazioko zuzendariak 2002ko otsailaren 14ko erabakiaren arabera, San Marko Mankomunitatea Idazkaritza-lanpostua sortu eta mantentzearen beharraz salbuetsita dago eta gaitasun nazionala duten Tokiko Administrazioaren funtzionarioentzat gordeta dago. Hortaz, funtzioak egingo ditu Mankomunitatearen udalerriren batean gaitasun nazionala duen funtzionari batek. Funtzio horiek izendatutako funtzionarioak betetako lanpostu nagusiaren barruan sartuko dira.

Zentzu berean, Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluaren arabera, Batzarrak izendatuko du Idazkaritza, eta mankomunitateko edozein udalerritan plaza jabetzan betetzen duen gaikuntza nazionala

**NOTIFICACIÓN**

**El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria de fecha 19 de julio de 2022 adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el siguiente acuerdo:**

**ACUERDO**

**10. Propuesta: Funciones de secretaría de la Mancomunidad de San Marcos que serán asumidas por la secretaria general del ayuntamiento de Errenteria. (2022RPOL0041)**

Por escrito de fecha 10 de mayo de 2022, la Presidenta de la Mancomunidad de San Marcos informó a este Ayuntamiento que el actual Secretario de la Mancomunidad, Secretario del Ayuntamiento de Lezo, ha comunicado su intención de renunciar al cargo. Informó también que de conformidad con los Estatutos de la Mancomunidad, habían abierto un plazo hasta el 20 de mayo para que aquellas personas funcionarias con habilitación de carácter nacional que desempeñen la plaza de Secretaría en propiedad en cualquiera de los municipios mancomunados, pudiesen mostrar su interés en ocupar el cargo comunicándolo a la Mancomunidad.

De acuerdo con la resolución de fecha 14 de febrero de 2002 del Director de Política Institucional y Administración Local del Gobierno Vasco, se exime a la Mancomunidad de San Marcos de la necesidad de crear y mantener el puesto de Secretaría, que se encuentra reservado a personas funcionarias de Administraciones Locales con habilitación nacional. Por lo tanto, dichas funciones serán ejercidas por una persona funcionaria de algún municipio mancomunado que tenga habilitación nacional y serán incorporadas al puesto principal cubierto por la persona funcionaria que resulte designada.

En igual sentido, el art. 7 de los Estatutos de la Mancomunidad establece que la Secretaría será designada por la Junta, siendo ejercida por persona funcionaria con habilitación nacional que desempeñe

ESKU09780125-83b2-4d2a-95c4-ad2b7bb4e8c2

duen funtzionarioak beteko du.

la plaza en propiedad en cualquiera de los municipios mancomunados.

2022ko ekainaren 17an San Marko Mankomunitateko Batzarrak erabaki du onartzea emandako proposamen bakarra, hain zuzen, Nagore Sarasolari dagokiona, gaur egun Errenteriako Udaleko Idazkaria dena. Gainera, Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzen du idazkaria aldatzeko beharrezko izapide guztiak egin ditzan, betiere gaur egungo indarreko baldintzak errespetatuz.

En sesión celebrada el 17 de junio de 2022, la Junta de la Mancomunidad de San Marcos ha acordado aprobar la única propuesta recibida, concretamente la correspondiente a Nagore Sarasola Otermin, quien ocupa en la actualidad el puesto de Secretaria General del Ayuntamiento de Errenteria. Además, faculta a la Presidenta de la Mancomunidad a realizar todos los trámites necesarios para dicho cambio, respetando las condiciones vigentes.

Interesatuaren onarpena eta interes publikoa ikusita, bidezkoa da Udalbatzaren Osoko Bilkurak baimena ematea gaur egungo Udaleko Idazkariak San Marko Mankomunitatean idazkari-lanak egin ditzan, eginkizun horiek lanpostu nagusiaren zereginetan sartuz eta harreman horren baldintzak arautuko dituen hitzarmen bat sinatuz.

Visto la aceptación de la interesada y el interés público, procede que el Pleno de la Corporación autorice que la actual Secretaria General del Ayuntamiento ejerza labores de secretaría en la Mancomunidad de San Marcos, incorporando dichas funciones a las tareas del puesto principal y suscribir un convenio que regule las condiciones de dicha relación.

Eginkizun horiek betetzeagatik, San Marko Mankomunitateak 16.125,12 euro ordainduko dizkio Udalari urtean. Kopuru honek Mankomunitateak 2022rako onartutako soldata-igoera jasota du eta San Markoseko Mankomunitateak bere langileen ordainsariak onar ditzakeen ehuneko berean igoko da.

Por el ejercicio de dichas funciones, la Mancomunidad de San Marcos abonará al Ayuntamiento una cantidad anual de 16.125,12 euros. Esta cantidad, que tiene incorporado el incremento salarial aprobado por la Mancomunidad para el año 2022, se incrementará en el mismo porcentaje que pueda aprobar la Mancomunidad de San Marcos las retribuciones de su personal.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (EPOETB).

- Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua.

- 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

- Euskadiko *Toki Erakundeei* buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP).

- Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

- Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

- Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local.

- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi - LILE

- Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico

ESKU09780125-83b2-4d2a-95c4-ad2b7bb4e8c2

Publikoaren araubide juridikoari buruzkoa

- 22/2021 Legea, abenduaren 28koa, 2022ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ikusirik Giza Baliabideetako Arduradunaren txostena, behin-behineko Idazkariak emandako adostasun oharrarekin.

Ikusirik Udal Kontuhartzaileak emandako fiskalizazio txostena.

Antolaketako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Giza Baliabideetako arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

2022ko uztailaren 13an, Giza Baliabideetako Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Udalbatzak aho batez, aldeko 21 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ/PNV eta Elkarrekin Errenteria), hau erabaki du:

**ERABAKI DU**

**LEHENENGOA**. Baimena ematea San Marko Mankomunitateari Nagore Sarasola Otermin Errenteriako Udaleko egungo Idazkari Nagusiak San Marko Mankomunitateko Idazkari-lanak egin ditzan.

**BIGARRENA**. Onartzea Mankomunitatearekin Idazkaritza funtzionak egikaritzeko baldintzak arautuko duen hitzarmen-proposamena, eranskinean jasotako moduan.

**HIRUGARRENA**. Errenteriako Udaleko idazkaritza orokorraren lanpostuari dagokion berariazko osagarria (LPZko 2100 kodea) 16.125,12 eurotan handitzea urtean, Mankomunitateko idazkaritza-funtzioak betetzen hasten denetik, 2022ko irailaren 1erako aurreikusita eta eginkizun-esleipen horrek irauten duen bitartean. Hori amaitutakoan, lanpostuaren berariazko osagarriaren urteko zenbatekoa aldatuko da, zehazki zenbateko horretan eta izan dituen soldata-igoerekin gutxituz, hala badagokio.

del Sector Público

- Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022

Visto el informe de la Responsable de Recursos Humanos con la nota de conformidad de la Secretaria Accidental.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Recursos Humanos y la conformidad dada por la responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Visto que en fecha 13 de julio de 2022, a propuesta de la Concejala Delegada de Recursos Humanos, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación por unanimidad de 21 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ/PNV y Elkarrekin Errenteria).

**ACUERDA**

**PRIMERO**. Autorizar a la Mancomunidad de San Marcos para que Nagore Sarasola Otermin, actual Secretaria General del Ayuntamiento de Errenteria ejerza labores de Secretaría en la Mancomunidad de San Marcos.

**SEGUNDO**. Aprobar la propuesta de convenio que regula las condiciones en que se ejercerán las funciones de Secretaría de la Mancomunidad, que se adjunta como anexo.

**TERCERO**. Incrementar el complemento específico del puesto de Secretaría General del Ayuntamiento de Errenteria (código 2100 de la RPT) en 16.125,12 euros anuales desde el comienzo del ejercicio de las funciones de Secretaría en la Mancomunidad, previsto para el día 1 de septiembre de 2022 y hasta tanto se mantenga esta asignación de funciones. Finalizada la misma, se modificará nuevamente el importe anual del complemento específico del puesto, disminuyendo el mismo en el citado importe así como en los incrementos salariales que haya podido sufrir, en su caso.

ESKU09780125-83b2-4d2a-95c4-ad2b7bb4e8c2

Ordainsari berri horiek lanpostuaren titularrari bakarrik ordainduko zaizkio, Mankomunitateko Idazkari-lanak egingo dituen pertsona bakarra delako, gaikuntza nazionaleko funtzionario izaera duen heinean.

Estas nuevas retribuciones serán abonadas únicamente a la titular del puesto, por ser la única persona que ejercitará las funciones de Secretaría de la Mancomunidad en su condición de persona funcionaria con habilitación nacional.

**LAUGARRENA**. Lanpostuen Zerrenda aldatzeko erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluaren baitan. Eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea akordio honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

**CUARTO**. Publicar el presente acuerdo de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16 de la Ley 6/1989, de Función Pública Vasca. Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en lo que se refiere a la publicidad activa de los aspectos del presente acuerdo.

**BOSGARRENA.** Akordioa jakinaraztea San markoseko Manokomunitateari.

**QUINTO.** Notificar el presente acuerdo a la Mancomunidad de San Marcos.

**Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.**

**Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.**

**NON: Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegia.**

**LUGAR: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.**

**EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.**

**PLAZO: en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.**

**Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.**

**No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.**

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkari ordea / La secretaria accidental

Begoña Bueno Barranco

ESKU09780125-83b2-4d2a-95c4-ad2b7bb4e8c2

- San Marko Mankomunitatea
- Pertsonal Batzordea
- Kontuhartzailetza



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU09780125-83b2-4d2a-95c4-ad2b7bb4e8c2**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022RPOL0041-JAKINARAZPENA PLENO AKORDIOA/NOTIFICACIÓN ACUERDO DE |
| --- | --- |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: BEGOÑA BUENO BARRANCO - 34104036G
Data / Fecha: 2022/07/20 12:59:00